



Gaia: prozedura bertan behera uzteko akordioa.

Espedientea: 2018-2020 aldian egin beharreko oinarrizko ikerketako eta/edo ikerketa aplikatuko proiektuak egiteko laguntzak, eta 2018-2019 aldirako Unibertsitatea-Enpresa ekintzetarako aurreikusitako funtsen kargura ikerketa eta berrikuntza teknologikorako laguntzak (2017ko azaroaren 28ko agindua, 2017/12/15eko 238. zk.ko EHAA).

Hezkuntza Saila

Hezkuntza sailburuaren 2017ko azaroaren 28ko agindua (2017/12/15eko 238. EHAA), ekipamendu zientifikoa eskuratzeko 2018ko ekitaldiko laguntzak emateko diru-laguntzak deitzen dituen, dela-eta Sail honetan tramitatzen ari den administrazio-prozeduran ebaluazio-txosten bat gehitu behar zaio; izan ere, txosten horrek arloari buruzko iritzia eman behar du eta prozedurari gehitu behar zaio derrigorrean, eman beharreko ebazpenaren edukiari buruz irizpidea zehazteko, mota horretako administrazio-prozedurei aplikatzen zaien araudiak xedatutakoaren arabera.

Horregatik, hau jakinarazten dugu: 2018/03/23an eskatu zaio Ekonomia eta Lehiakortasunako Ministeritzako (MINECOko) Koordinazio eta Ebaluazio Subdibisioari aipatutako txostena, eman eta bidal dezan, administrazio-espedienteari gehitzeko asmoz.

Administrazio publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeak 22. artikuluan xedatutakoaren arabera, hiru hilabetetik gorakoa ezin izango den epe batean, eskaera egiten denetik derrigorrezko txosten arrazoitua jaso arte, bertan behera utzi ahal izango da prozedura bat ebatzi eta ebazpena jakinarazteko legezko gehienezko denbora.

Horren arabera,

EBAZTEN DUT

Bertan behera uztea Hezkuntza sailburuaren 2017ko azaroaren 28ko aginduaren (2017/12/15ko 238. EHAA), 2018-2020 aldian egin beharreko oinarrizko ikerketako eta/edo ikerketa aplikatuko proiektuak egiteko laguntzak, eta 2018-2019 aldirako Unibertsitatea-Enpresa ekintzetarako aurreikusitako funtsen kargura ikerketa eta berrikuntza teknologikorako laguntzak deitzen dituen, espedientea dela-eta Sail hau aurrera eramaten ari den administrazio-prozeduraren tramitazioa, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeak eman beharko duen ebazpenaren edukia zehazteko funtsezkoa izango den derrigorrezko txostena jaso eta espedientera gehitu arte. Txosten hori jasotzea dela-eta, emango zaio interesuari unean-uneko informazioa.

Halaber, hau jakinarazten dugu: tramitazioa bertan behera uzteko epea ezin izango da inoiz ere hiru hilabetetik gorakoa izan, Administrazio publikoen



Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeak 22. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ebazpen hau prozeduran interesatuta dauden guztiei jakinaraziko zaie, Administrazio publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeak 40 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko apirilaren 15a



HEZKUNTZA SAILA
Ikerketa Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Dirección de Investigación
Amaia ESQUISABEL ALEGRIA
Ikerketako Zuzendaria .